

2025eko APIRILA

BERMEON ZER?

Apirilak 4

**"Mamuak ezagutzera
joan zen umea",
Anodino Teatro**

Apirilak 20

Aberri Eguna

Apirilak 25-26

**Bermeoko II. Herri Kirol
Txapelketa Herrikoia**

**BERMEOKO
UDALA**

ARRAIN AZOKAKO PINTXO TXAPELKETA



Aste Santutik Arrain Azokara arte

Tabernen arteko pintxo txapelketa

APIRILAK 11

Pintxoaren aurkezpena Udal Azokan
arratsaldeko 18:00etan

APIRILAK 12 - 27

Pintxoak dastatzeko aukera taberna
parte-hartzaileetan 12:00etatik
14:00ak arte.

Epaileak: profesionalak eta
herritarrak!!!

Herritarren botoei esker finalera
pasatuko denak zure botoak behar
ditu. QR kode honen bidez emon zure
botoak.



Taberna parte-hartzaileak:
Batun Batun, Talako Kantina Kai
Alde, Joshe Mari,
Kafe Antzoki, Toki Alai, Andeko,
Artza, Akelarre, Eguzki, Beti Ondo

Lagunen arteko pintxo txapelketa

APIRILAK 24

FINALaurrekoa
Pintxo guztiak aurkeztuko dira Udal
Azokan 18:00etan. Epaileek 3 pintxo
aukeratuko dituzte finalerako.

ZELAN HARTU PARTE?

Edonork hartu ahal du parte: lagunak,
kuadrillak, txokoak... betiere 18 urte
baino gehiago badituzue, eta
sukaldaritzako profesionalak ez
bazarete. Etorri turismo bulegora
apirilaren 22a baino lehenago, eman
izena eta jaso oinarriak.

SARIAK

Txapelduna

Txapela eta diploma
Herriko kontserba fabrika bisitatu eta
produktuak dastatu eta itsasontziz
ibilbidea egin (6 pertsona)

2. sailkatua

Diploma
Herriko kontserba fabrika bisitatu eta
produktuak dastatu (6 pertsona)

3. sailkatua

Diploma
Herriko kontserba fabrika bisitatu eta
produktuak dastatu (6 pertsona)

**FINAL BIAK, ARRAIN AZOKAKO BARIKUAN,
MAIATZAK 16, 18:00ETAN**

MARTXOA

30 **Domeka**
Lameran
13:00etan

EKITALDIA

EUSKARALDIA



Maiatzaren 15etik 25era bitartean izango den Euskaraldiaren Bermeoko hamaikakoaren aurkezpena.

Antolatzailea: **Bermeoko Euskaraldia**

02 **Eguaztena**
Sancti Spiritus
zaharren
egoitzan
17:30ean

MUSIKA

Musika Eskolako Haize Taldeko
ikasleen kontzertua

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

03 **Eguena**
Arrantzaleen
Museoan
18:00-20:00

HITZALDIA

'ONTZI TRADIZIONALAK
BERRESKURATZEAREN
ERRONKA'

Nuevo Anchústegui-ren historia eta zaharberritzea (euskara-gaztelania). Hizlariak: Carmen Lopez Camarzana, Jon Ispizua eta Juan Antonio Apraiz. Doan. Erreserba beharrezkoa da, leku mugatua dago eta.

INFORMAZIO ETA ERRESERBAK: 94 688 11 71
arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

Antolatzailea: **Arrantzaleen Museoa**


04 **Barikua**
Bekoportalen
17:30ean

MUSIKA

KONTZERTUA

Musika Saioa Musika Eskolako irakasleekin

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



04 Barikua Kabidxen 17:30-20:30



Nestor
Basterretxea
aretoa
18:00etan



05 Zapatua Areneko kiroldegian

Gizarte eta
Kultura
Etxean
16:00-20:00

TOPAKETA

EMAKUMEAK SARETZEN III. TOPAKETA

Bermeoko Mugimendu Feministak, 2024. urtean herriko emakumeak* saretzeko egindako lanketarekin jarraituz, III. Topaketa antolatu du. Intersekzionalitatea funtsezko elementu artikulatzailetzat hartuta eta aniztasuna abiapuntu izanik, ekimen honen helburua da herriko emakume elkarteak eta norbanakoak sarezea. Denok elkartzeko, gure artean hobeto ezagutzeko eta elkarrekin jarduteko aukera izango dugu. Zerk batzen gaitu? Zerk pizten gaitu? Denon bizitzak erdigunean jartzeko Bermeoko Emakumeok* saretu gaitezen! Zaintza zerbitzua eskainiko da.

Antolatzailea: **Bermeoko Mugimendu Feminista**

Lankidetzeta Diamou eta Assalam elkarteekin

Laguntzailea: **Kabidxe Gune Soziala**

ANTZERKI FAMILIARRA

“MAMUAK EZAGUTZERA JOAN ZEN UMEA”, Anodino Teatro

Sinopsia: Egun gogorra suertatu da Malda eta Zorrotzek lan egiten duten almagazean: aurkitu beharreko erlikia galdu bat, konpontzeko dagoen musika-tresna eta, hori gutxi ez balitz, istripu baten ondorioz objektu guztiek bizia hartu dute ustekabeak sorraraziz... eta bakoitzaren mamuak esnatuz.

Txontxongiloak, zuzeneko musika eta antzerkia batzen dituen ausartentzako abentura.

Sarrera: 5 € (salgai martxoaren 24tik aurrera).

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

Bizkaiko Foru Aldundiak babestutako ekintza



KIROLA

ESKUBALOA

Neska kadeteak: Urdaibai Garbola – Kadagua EE

Infantil neskek: Urdaibai Kurtzio – Errotabarri Beltza Infantil

Infantil neskek: Urdaibai Gaztelugatxe – Urdaibai Sollube

TAILERRA

AUTODEFENTSA FEMINISTA TAILERRA

(10 eta 15 urte bitarteko nesKentzat)

Izen-ematea: berdintasuna@bermeo.eus edo 688 638 449

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

05 **Zapatua**
Santa Maria
elizan
19:00etan

MUSIKA

KRESALA KONTZERTUA

Parte-hartzaileak: Bermeoko Abesbatza, Lekeitioko Kilin Kala abesbatza eta Ondarroako Kantaize abesbatza.

Antolatzailea: Bermeoko Abesbatza

07 **Astelehena**
Sancti Spiritus
zaharren
egoitzan
12:30ean

MUSIKA

'DOINUAK' KONTZERTUA

Musika Eskolako trikitixa eta pandero taldea.

Antolatzailea: Bermeoko Udala



Apirilaren
7tik 10era

EKITALDIA

KONTATU LITERATUR ASTEA

San Frantzisko
Herri
Ikastetxean
17:00etan

Apirilaren 7tik 10era: bigarren eskuko liburu azoka txikia ikastetxeko patioan

Apirilaren 8an: Iñaki Friera "Izaroko Altxorra"ren idazlea ikastetxeko liburutegian.

Apirilaren 9an: Sorgina Txirulina ipuin kontalaria ikastetxeko liburutegian.

Apirilaren 10ean: Narrazio Lehiaketako ikasleen aurkezpena.

Antolatzailea: San Frantzisko Herri Ikastetxeko Familia Elkarte

08 **Martitzena**
Egoitz Alai
zaharren
egoitzan
12:00etan

MUSIKA

'DOINUAK' KONTZERTUA

Musika Eskolako trikitixa eta pandero taldea.

Antolatzailea: Bermeoko Udala

Lameran
19:00etan

EKITALDIA

OPOR AURREKO TOPAKETA

Berbalagunak elkar agurtzeko hitzordua. Apirilaren 28tik aurrera talde guztiak martxan egongo dira.

Antolatzailea: Bermeoko Berbalagun



09 **Eguaztena**
Gizarte eta
Kultura Etxean
18:00-20:00

TAILERRA

PLENOPAUSIA TAILERRA

Izen-ematea: berdintasuna@bermeo.eus edo 688 638 449


Antolatzailea: Bermeoko Udala

11 **Barikua**
Erroxapeko
lokalean
19:00etan

EKITALDIA

BINGOA

Antolatzailea: Erroxape Emakumeen Elkarte



11 **Barikua**
Hermauetako
Kapillen
21:00etan

MUSIKA

KONTZERTUAK

John Dealer and the Coconuts (Legazpi)
Trini Fox (Azpeitia-Azkoitia), Ziraun (Gernika-Lumo)
Sarrera: 8 €

Antolatzailea: **Nuntxaku kultur elkarte**

12 **Zapatua**
Areneko
kiroldegian
10:30ean

KIROLAK

Gimnasia erritmikoa I. XIXILI ESKOLARTEKO TORNEOA

Antolatzailea: **Xixili Gimnastika taldea**



Areneko
kiroldegian

ESKUBALOIA

Infantil mutilak: Talape – Escuadra Basauri

Areneko
kiroldegian

FUTBITO

Biara Bermio A – Goiztiri A

Areneko
kiroldegian
17:00etan

UR BATAIOA

18 urtetik gorakoentzat.
Izen-emateak: Areneko kiroldegian.

Antolatzaileak: **Izaro Sub eta Bermeoko Udala**



Arrantzaileen
Museoan
11:00etan

MUSEKINTZA

'HAURRENTZAKO LABORATEGIA + ITSAS (H)ONDOAK ANTZEZLANA


HAURRENTZAKO LABORATEGI didaktiko eta dibertigarri hauetan haurrek, haien kabuz, material erraz eta erabilgarriak erabiliz euren sorkuntzak sortuko dituzte eta, ondoren, inprobisatu eta esperimentatzeko aukera izango dute.

ITSAS (h) ONDOKOAK antzezlanaekin, aldiz, Piratak, hondartzako abenturak eta itsas hondoko izakiak ezagutuko dituzte bertaratuko direnek.

Zuzeneko musika, ahokotasuna, clown teknika eta itzal antzerkia baliatuko dira itsasoaren inguruko unibertso hau ikusleei helarazteko.
ADINA: 3-7 urte. HIZKUNTZA: Euskara. Doan. Erreserba beharrezkoa da, leku mugatua dago eta.

INFORMAZIO ETA ERRESERBAK: <https://musekintza.eus>

Antolatzailea: **MusEkintza**



13 Domeka



Santa Maria
elizpean
11:30-13:30

16 Eguaztena Gizarte eta Kultura Etxean 19:00etan



MUSIKA

BERMEOKO V. KANTU EGUNA

Herriko eta zonaldeko kantuzaleok elkartu eta, berriro ere, Bermeoko kaleak Kantuz blai egitea dugu helburu. Batzen gaituen kantuzaletasunak eta euskal kantagintzaren gogoak elkar indartzeko.

PARTE-HARTZAILEAK:

- Bermeo: Bermeoko Abesbatza + Erroxape + Kanta kanta lorue
- Gernika-Lumo: Urdaibai Kantagunea
- Busturia: Kantu Jira taldea
- Talde gonbidatua: Indautxuko lagunen abesbatza

EGITARAUA:

12:00etan: Harrera eta ongi etorria

13:00-14:00: Kantu Jira. Talde bakoitzak bere ibilbidea.

14:15ean: Talde guztiak batuko gara San Migeleko eskaileratan, goizeko azken kantu zaparrada egiteko.

15:00etan: Bazkaria Kasinoan

19:00etan: Amaierako kantuak eta agurra, denok batera, Lamerako Kosmogonian.

Antolatzailea: **Kanta kanta lorue**

DENDA SOLIDARIOA

KIDENDA

Antolatzailea: **Kidenda**



IRAKURLEEN TXOKOA

“BELARRAREN AHOA”, Harkaitz Cano

Epalea eta haren berreroa, nobela beltz asko bezala, hilotz batekin hasten da. Baina badu ezaugarri bat nobela beltz ohikoetatik bereizten duena: ustez istorio nagusia dirudienari –hilketa bera eta hilketa argitzeko prozesua– beste istorio batek hartuko dio gaina, nobelak aurrera egin ahala. Dürrenmatten lanetan, izan ere, beti agertzen da ustekabeak arrazoimenaren logika hausteko duen indarra, eta nobela honetan, zehazki, ustekabe batek dakar lehen planora liburuko istorio nagusia. Eta ustekabearekin loturik ageri dira maiz, orobat, errua eta norbanakoaren erantzukizuna, Dürrenmatten dilema filosofikoaren ardatzetako bi. Bada, bestalde, auzi funtsezko bat eleberrri honetan: ongiaren eta gaizkiaren arteko muga lausoa, pertsonaia zintzoen eta gaiztoen arteko bereizkuntza garbirik eza. Oso interesgarria da, alde horretatik, Bärlach eta Gastmann pertsonaien arteko harremana, ongiaren eta gaizkiaren arteko mugaren josturak hausten baititu. Suitzian gertatzen dira nobelako pasadizo guztiak, 1948an, Bieleko aintziraren inguruko herrixketan eta Berna hirian”

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

BISITA GIDATUAK

GAZTELUGATXEKO SAN JUANERA BISITA GIDATUAK ASTE SANTUAN

Apirilak 17, 18, 19, 20 eta 21



Bisita honetan, bermeotarren sinesmen, erritu eta ohituren bidez, Gaztelugatxeko San Juanen nortasuna hobeto ezagutzeko aukera izango du bisitariak eta baseliza ere bisitatuko du, Gaztelugatxeko San Juan Bermeoko zati eta esentzia baita.

Aldi berean, Gaztelugatxeko San Juaneko ingurumen-berezitasunak ezagutuko ditu. Ingurune babestu hori guztion artean zaindu behar dugu, eta zerbitzu honekin Gaztelugatxeko San Juaneko esperientzia bultzatu gura dugu, ikuspegi ekoturistikoa batetik. Prezioa: orokorra 14 €/ 6-16 urte bitartekoak 9 €/ 6 urtetik beherakoak 1 €

Erreserbak egiteko: www.bizibermeo.eus

Aste Santuko eskaintza turistikoa: www.bizibermeo.eus

Informazio gehiago Bermeoko Turismo Bulegoan: 94 617 91 54
turismoa@bermeo.eus

Orduak: 09:30 eta 11:30. Irteera: Lamerako autobus geltokia.

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

19 **Zapatua**
Goiko Plazan
09:00-19:00

EKITALDIA

MERKATU TXIKIA

Birziklatu, berrerabili, aldatu, oparitu... eman irteera eta bizia sasoi batean erositako gauzei.

Antolatzailea: **Haitz Nagusidxe Alde Zaharreko Auzo Elkarte**



20 **Domeka**
Goiko Plazan
12:00etan

EKITALDI INSTITUZIONALA

ABERRI EGUNA

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**



23 Eguaztena
Gizarte eta
Kultura Etxean
19:00etan



IRAKURLEEN TXOKO FEMINISTA

“KAPITALISMOA ETA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA”, Silvia Federici (Amaia Astobizak itzulua)

«Silvia Federiciren Kapitalismoa eta emakumeen aurkako indarkeria liburua saiakera-bilduma bat da, eta bi zatitan banatuta dago. Lehenengo zatian, XV. eta XVIII. mendeen arteko Europako sorgin-ehizak jorratzen dira; bigarreanean, berriz, gaur egungo mundu-mailako sorgin-ehizak aztertzen dira. Bi zati horiez gain, liburuak sarrera bat du, baita ondorioak biltzen dituen atal bat ere. ‘Zergatik orain?’ galderari bigarren zatiko bi ataletan erantzuten dio nagusiki, zeinetan argudiatzen baitu zergatik kokatu behar den testuinguru historiko egokian gaur egun emakumeen aurkako indarkeria bititzen ari den gorakada Mexikon, Indian eta Afrikako zenbait tokitan, hau da, azken urteotan kapitalismo globalaren presioa jasan duten herrialdeetan»..

Antolatzailea: **Bermeoko Udala**

25 Barikua
Erroxaperen
lokalean
19:00etan

FILM EMANALDIA

“PEQUEÑA MISS SUNSHINE”

Antolatzailea: **Erroxape Emakumeen Elkarte**



25 Barikua
26 Zapatua
Lameran eta
Artza frontoian

HERRI KIROLAK

BERMEOKO II. HERRI KIROL
TXAPELKETA HERRIKOIA

Apirilaren 25ean entrenamenduak eta apirilaren 26an txapelketa.

Antolatzaileak: **Bermeoko Udala eta Sustabiz Fundazioa**



Kultur Zerbitzuak

UME TXIKIEN TXOKOA

Gizarte eta Kultura Etxean
Astelehenetik eguenera,
16:30etik 19:30era
Umeek arduradun batekin egon
beharko dute derrigorrean.

BEKOPORTALE

0-5 urte bitarteko umeentzat
Kardenal Mendoza aldatsean
Martitzenetik barikura,
17:00etatik 19:00etara

LUDOTEKA

6-11 urte bitarteko ume eta
gaztetxoentzat
Barikuak, zapatuak
eta Pazko Astea
(apirilak 22-26), 17:00-20:00
Gizarte eta Kultura Etxean

APIRILA
6-11 URTE BITARTEKO UME ETA GAZTETXOENTZAT
BARIKUA ETA ZAPATUA 17:00 - 20:00

4	LORAK LANDATU	12	IRTEERA DEMIKU AUZORA	11	ESPERIMENTUAK URAREKIN	5	DENBORAPASAK TABLETAN
---	---------------	----	-----------------------	----	------------------------	---	-----------------------

BERMEOKO LUDOTEKA

ASTE SANTUA
ORDUTEGIA: 17:00 - 20:00
IRTEERAK IZAN EZIK.

22	23	24	25	26
YOGA	IRTEERA GERNIKARA	PLAY BLACK	DANTZA MODERNOA	SUKALDARITZA IZOTZ EDARIA



BEKO POR TALE



APIRILEKO PROGRAMAZIOA

ASTELEHENA	MARTITZENA	EGUAZTENA	EGUENA	BARIKUA
	1 JOLAS LIBREA	2 PSIKOMOTRIZITATEA	3 MAHARROI OSTADARRA	4 MUSIKA JARDUERA
7 PSIKOMOTRIZITATEA	8 JOLAS LIBREA	9 PSIKOMOTRIZITATEA	10 LORETXIN MARGGZTEN	11 KOLOREDUN LOREA
14 PSIKOMOTRIZITATEA	15 JOLAS LIBREA	16 PSIKOMOTRIZITATEA	17 ITXITA	18 ITXITA
21 ITXITA	22 HOSTOZ EGINDAKO TXIMELETA 17:00-20:00	23 JOLAS KOOPERATIBOAK 17:00-20:00	24 IPUINKONTALARIA 17:00-20:00	25 NI ETA NATURA 17:00-20:00
28 PSIKOMOTRIZITATEA	29 JOLAS LIBREA	30 PSIKOMOTRIZITATEA	ORDUTEGI ARRUNTA: ASTELEHNETIK BARIKURA 17:00-19:00	

Hurtado de Mendoza Kardenalaren kalea, 8 kultura@bermeo.eus 946 17 91 57



GAZTEENTZAKO JARDUERAK

ZIENTZIA ESPERIMENTUEN
CAMPUSA PAZKO ASTEAN
Apirilaren 23tik 25era,
Bermeoko Gaztelekuan
Ordutegia: 10:00-14:00
8-14 urtekoei zuzendua.
Plaza kopuru mugatua.
Izen-ematea: Bermeoko GIZen.
Plazak esleitzeko, izen-ematearen
ordena jarraituko da. Plaza guztiak
betetzen badira, itxarote-zerrenda
sortuko da.
INFO +
www.gizbermeo.blogspot.com
eta 688 819 950 (WhatsApp
zenbakia)
Plaza kopuru mugatua.

ZIENTZIA ESPERIMENTUEN CAMPUSA



APIRILAREN 23TIK 25ERA - GAZTELEKUAN

Adina
8-14-urte

Ordutegia
10:00-14:00



INFO +
www.gizbermeo.blogspot.com
688 819 950



APIRILA

BERMEOKO EMAKUMEAK
SARETUZ

IRAKURLE TXOKO
FEMINISTA

NESENTZAT
AUTODEFENTSA FEMINISTA

PLENOPAUSIA

INDARKERIA MATXISTAN
FORMAKUNTZA

MAIATZA

ZORU PELBIKOA EZAGUTZEN

PLENOPAUSIA

AGROEKOLOGIA FEMINISTA

EZAGUTU ZURE ESKUBIDEAK,
MIGRAZIO LEGEA

EMAKUME NAGUSIAK ETA
SEXUALITATEA

IRAKURLE TXOKO
FEMINISTA

EKAINA

EMAKUMEAK HISTORIAN
ZE HAR, IBILBIDE GIDATUA

ZINEGOAK

PLENOPAUSIA

ZIKLOA EZAGUTZEN
HILEROKOTIK HARATAGO

SATEVI (24 ORDU, 51 HIZKUNTZA)

900.840.111

ANOLKULARITZA: Biktima, senide, eta profesionalentzat. Doodkoa, ez da fakturan agertzen

SEXU-INDARKERIAREN BIKTIMEI ARRETA OSOA (24 ORDU)

900.840.977

GIZARTE ZERBITZUAK, ABOKATUA, PSIKOLOGOA

946.179.160

- Informazioa eskatzeak ez zailtu heste pausorik ematera behartzen
- Behar duzun edozertarako deitu

INDARKERIA MATXISTARI AURRE EGITEA GUZTION
ARDURA DA

BERDINTASUNA

Autodefentsa feminista tailerra

(10 eta 15 urte bitarteko neskenentzat)

Ikastaroan, beste neska batzuekin elkartu eta neska izateagatik ezberdin tratatzen gaituztenean nola sentitzen garen adieraziko dugu. Sentimendu horietaz arituko gara, eta geure burua babesteko, zaintzeko eta maitatzeko nola defenda gaitezkeen pentsatuko dugu. Honako hauek dira lantegiaren xedeak: ahalduntzea eta autoestimua lantzea, gure gorputzen inguruan hausnartzea, biktima-rola alboratzea eta egoera arrisksutsuei geure kabuz aurre egiteko sentimendua lantzea. Erasoetatik defendatzeko, oinarrizko teknikak ikasiko ditugu praktikan jartzeko.

Trebatzailea: Esther López Monge, indarkeria matxistan aditua, Safo Eskolako kidea.
Izen-ematea: berdintasuna@bermeo.eus edo 688 638 449.

APIRILAK 5 ETA APIRILAK 12, Gizarte eta Kultura Etxean, 16:00-20:00

Antolatzailea: Bermeoko Udala



Plenopausia tailerra

Menopausia ez da bakarrik haurdun gelditzeko ezintasuna sortzen deneko etapa bat, hortik haratago doan bizitzako momentu garrantzitsua da, klimateria. Tamalez, gaur egun "krisi" garaitzat hartzen da, eta ziur entzunda ala onartuta daukazula. Tailerrean klimateria ezagutuko dugu, eta limitazioak eta aukerak landuko ditugu. Horrez gain, ezinegona sortzen duten emozioak kudeatzeko estrategiak landu eta haurdunalditik haratagoko sexualitatea landuko dugu. Azkenik, bizitzako etapa hau modu osasuntsuagoan bizitzeko estrategiak ikusiko ditugu. Partekatze eta errespetuzko espazio honetan, tailer teoriko-praktikoa izango dugu.

Trebatzailea: Ana Valles Psikologoa eta sexologoa.
Izen-ematea: berdintasuna@bermeo.eus edo 688 638 449.

APIRILAK 9, MAIATZAK 7 ETA EKAINAK 4, Gizarte eta Kultura Etxean 18:00-20:00

Antolatzailea: Bermeoko Udala

Tabernari eta merkatarientzako indarkeria matxistari buruzko formakuntza

Bermeoko eraso matxisten aurkako Puntu Seguruaren Sarera atxikitze formakuntza.

Azken urteetan udalerrian emandako indarkeria matxista kasuen gorakada kontuan hartuta, eta herri seguruago bat lortzeko bidean, puntu seguruaren sarea osatu dugu, herriko ostalari eta merkatariekin elkarlanean. Gune seguruak, indarkeria matxista jasotzen duten pertsonen eta euren ingurukoei babesa emateko. Langile guztiak egunetarikoa batean 2 orduko saioan parte hartzea ezinbestekoa izango da.

Izen-ematea: Berdintasuna@bermeo.eus edo 688.63.84.49, ez dago plaza mugarik.

APIRILAK 7. 14:30-16:30, APIRILAK 8. 08:00-10:00, Gizarte eta Kultura Etxean



ERAKUSKETAK

Berhaz Bulegoan

Berhaz Bulegoko XLII. ERAKUSKETEA

OANA PERJERU "ABRIENDO CAMINOS. Paisajes desde el corazón"

Harremanetarako: 678 279 679 /oanaperjeru77@gmail.com

Bulegoko ordutegia:

Astelehena-eguzatena-barikua: 08:00-15:00

Martitzena-eguen: 08:00-14:00 eta 16:00-18:00



Arrantzaleen Museoa

Nuevo Anchustegi "Gure Señoriti"

Museoko ordutegia:

Martitzenetik zapatara: 10:00 – 16:00

Domeka eta jaiegunetan: 10:30 – 14:30


Astelehenetan itxita.

Erakusketak Ondarroako Nuevo Anchustegi ontziaren istorioa kontatzen digu. Euskal Herriko baxurako arrantza tradizionalaren garapenaren ordezkari, ontzia ondare material garrantzitsu legez aurkezteaz gainera, erakusketak memoria immaterialean be sakontzen du, eta Nuevo Anchustegi-n bizi eta lan egin zuten personen lekukotasun eta esperientzietan murgiltzera gonbidatzen gaitu.

Tel. 946881171/ helbide elektronikoa: arrantzaleenmuseoa@bizkaia.eus

www.bizkaikoa.bizkaia.eus

Antolatzailea: Arrantzaleen Museoa





2025eko ASTE SANTUA



URETAN JOLASEAN

Musika, jolasak, ginkanak

Apirilak 22 eta 24 (3-4 urtekoak)

Apirilak 23 eta 25 (5-6 urtekoak)

11:00-12:00

TXIKI OLINPIADAK

Waterpoloia, akua-zunba, akua-saskia

Apirilak 14 eta 16

(7 urtetik gorakoentzat, ezinbestekoa igerian jakitea)

12:30-13:30



TXIRRINDUAN TREBATU

Apirilak 15, 22 eta 24

(4 urtetik gorakoentzat)

12:30-14:00



PREZIOA SAIOKA: • Ikastaroetan dauden umak 1,10 € • Abonatuak 6,20€ • Er abonatuak 12,40€

IZEN-EMATEAK (web orrialdean eta salmenta makinetan): • Abonatuak martxoaren 17tik aurrera • Er abonatuak martxoaren 21etik aurrera



ZINEA

NESTOR BASTERRETXE ARETOAN

Astero filmen informazioa udalaren webgunean, Bermeo zabaltzen APPean eta sare sozialetan zabalduko da.

SARRERAK:

salanestorbasterretxea.sacatuentrada.es

Zapatu eta domeketan: 6,00 €

Astelehenetan, ikuslearen egunean: 4,50 €

Umeen filmak: 4,50 €

NAGUSIENTZAKO FILMAK:

- Una Ballena
- Tierra de nadie
- Guillermo Tell
- La Isla de los Faisanes

Zapatu eta domeketan: 19:30ean


Astelehenetan, ikuslearen egunean: 19:00etan eta 21:30ean

UMEENTZAKO FILMAK:

- Diplodocus
- Kaixo Frida
- Panda Bear en Africa
- Minecraften filma

Zapatu eta domeketan: 17:00etan

*OHARRA: ordutegiak aldatu ahal izango dira, filmak luzeak diranean.



KZ GUNEA

AURREZ AURREKO IKASTAROAK

Apirilaren 14tik 15era: 11:00-13:00. "Google Maps. Zure ibilbiderik onena arakatu eta aukeratu" (gaztelaniaz). 4 ordu.

IT TXARTELAK ATERATZEKO AZTERKETEN DATAK

Apirilaren 3an: 14:00-16:00 eta 16:00-18:00
Apirilaren 11n: 11:00-13:00

Zubiaur tar Kepa 26-28
1. solairuan (udal-azokan)
Tel.: 944033325
www.kzgunea.eus
tutor.bermeo@kzgunea.net

HEGALUZE SARIA

XXVIII. Hegaluze Sarirako hautagaien proposamenak aurkezteko epea, apirilaren 1etik 27ra.

- Hegaluze Saria ekintza puntual edo jarraipen profesional bat saritzen du, eta Bermeoren izena zabaldu eta goratu duenari edo herriaren alde lan egin duenari ematen zaio.
- Saria pertsona, erakunde, elkarte, entitate, enpresa edo proiektu batek jaso dezake, eta proposamenen artean arlo guztietako ekintza motak aurkeztu daitezke: kirola, enpresa, kultura, gizartea, ekonomia...
- Proposamenak orri batean aurkeztu beharko dira, aukeratuaren datuekin eta zergatik aukeratu den azalduta.
- Proposamenak bi modutara aurkez daitezke: Bermeoko Udal Turismo Bulegoan edota turismoa@bermeo.eus posta elektronikora idatzita.



BEHARGINTZA

EnpleGU Zure enplegurako zubia

Langabezian bazaude, prestakuntza gutxi baduzu eta lan-munduan sartzea kostatzen zaizula sentitzen baduzu, EnpleGU zuretzat da. Funtsezko trebetasunak eta gaitasun profesionalak garatzen eta gizartean bete-betean parte hartzeko eta lana aurkitzeko behar duzun konfiantza ematen laguntzen dizugu.

EnpleGU zure hazkunde pertsonal eta profesionalean laguntzera bideratuta dago, oztopoak gainditzeko eta zure gizarte- eta lan-aukerak hobetzeko beharrezkoak diren tresnak eskainiz.

Programak prestakuntza teknikoa eskaintzen dizu enpresek eskatutako arloetan. trebakuntza horrek enplegua lortzen edo zure ibilbide profesionalean aurrera egiteko prestakuntza ematen lagunduko dizu.

Ikasketa maila baxua eta giza eta lan beharrak dituzten pertsonen enplegu aukerak sortzeko EnpleGU programan parte hartuko dau Bermeo, Mundaka eta Sukarrietako Behargintzak. Nautika eskolarekin lankidetzan jardungo dabe, eta homologatuta dagoen prestakuntza eskainiko dute:

- Itzasontziko segurtasuna eta lehen sorospenak (70 ordu): Segurtasuneko Oinarrizko Prestakuntzako ikastaroaren baliokidea da
- Arrantza-ontziko estalki-lanak (30 ordu): Marinel arrantzale-ikastaroaren baliokidea da
- Arrantza-aparailuak muntatzea (190h)

Informazioa: 94 617 91 90/behargintza@bermeo.eus



Europar Batasunak
kofinantzatua

BERMEOKO
UDALA

BERMEOKO ZESTA PUNTA ESKOLA

Apirileko zapatu arratsaldeetan
zesta puntako partiduak
egongo dira Artza frontoian:

- 16:00- 18:00. Hasi berriak
- 18:00etatik aurrera. Gazteak eta nagusiak.

**Zatoz Jai Alaiaz goatzera
Bermeoko Zesta Punta
Eskolaren eskutik!**



ANTZERKI TAILERRA

Apirilaren 2, 9, 16, 23 eta 30ean.
Gizarte eta Kultura Etxean
19:30ean

GIZ

ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO AHOLKULARITZA ZERBITZUA:

familientzako informazio, aholkularitza eta orientazio zerbitzua da. Doakoa eta isilpekoa.

- Noiz: astero: martitzen, eguazten eta eguenetan
- Orduategia: 08:30-14:30
- Non: Gizarte eta Kultura Etxean, 1. solairuan, gazte ekimenak gelan
- 675 025 018/bermeoprebentzioa@etorkintza.org

UDALEKUAK 2025

Hartzaileak: 2012. urtetik 2018. urtera (urte biak barne) jaiotakoak.

Iraupena: 7 eguneko txandak, uztaillaren 1etik 29ra arte.

Izena emateko epea: martxoaren 18tik 27ra.

INFO + www.bizkaia.eus/udalekuak



BIDAIATEKA

Mundu osoko gidak zure esku Aste Santuko bidaiak eta oporrak prestatzeko!

Bidaia giden 15 eguneko doako mailegua. Eta, gainera: bidaietako aldizkariak, ostatuak, kanpinak, gazteentzako nazioarteko txartelak: aterpekide txartelak, ISIC, ITIC...

INFO + www.gizbermeo.blogspot.com



XXXI.

Arrain
Azoka

Bermeo 16
Maiatzak 17
18

Maiatzean...

- Arrain Azoka
- Euskaraldia
- Haur olimpiadak
- Warhammer
- 40.000 VI. Lehiaketa



EUSKARALDIA

Maiatzaren 15etik 25era
Eman izena Euskaraldian



Ahobizi ala Belarriprest
izango zara?

Izen-ematea ►
zabalik daukazu!



Enpresa txiki nahiz handi, denda, taberna, estetika edo osasun zentro, kultur elkarte edo kirol taldeek ere parte hartu dezakete Euskaraldian. www.euskaraldia.eus

www.bermeo.eus

